

2020KO UZTAILA14AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO MAIATZAREN 27KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- 2019 EKITALDIKO URTEKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.
- 3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 4.- GALDE-ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Bilkurari hasiera eman baino lehen, Alkateak, gai zerrendan agertzen ez den honako gai hauek eztabaidatzea proposatzen du:

- SAN BARTOLOME JAIK BERTAN BEHERA UZTEKO ERABAKIA.

Proposamenaren izaerak ikusi eta hau eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez

erabakitzen du gaia bilkura honetan eztabaidatzea.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO MAIATZAREN 27KO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2020ko maiatzaren 27ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- 2019 EKITALDIKO URTEKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Espedientea ikusirik

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2004 Foru Arauaren 63. atalean ezarritakoaren arabera, Udaleko 2019ko Kontu Orokor hauek jendaurrera jarri ziren.

Dagozkion argitalpenak, 2020ko maiatzaren 25ko 96 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko alean eta Udaleko iragarki oholean egin ondoren, erreklamazioak, eragozpenak eta oharpenak jaso ez direla kontuan harturik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

- 1) 2019ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.
- 2) Espedientearen kopia bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Kontu Epaitegiari bidaltzea.

3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 07/0520 erabakia, maiatzaren 28koa, 17 zenbakidun fakturen erlazioa (maiatza 2) onartuz, guztira 28.837,20 eurokoa.
- 08/0520 erabakia, maiatzaren 29koa, lan baimena emateari buruzkoa.
- 09/0520 erabakia, maiatzaren 29koa, ezkontza baimentzeko ahalmena eskuordetuz.
- 010/0520 erabakia, maiatzaren 29koa, egutegi fiskala aldatuz eta beste zerga-neurri batzuk onartuz.
- 01/0620 erabakia, ekainaren 4koa, 18 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina) onartuz, guztira 22.879,10 eurokoa.
- 02/0620 erabakia, ekainaren 4koa, COVID-19a dela eta udal zerbitzuen irekierari buruzkoa.

- 03/0620 erabakia, ekainaren 10ekoa, Gure Esku Dago ekimenaren bilera eskaerari buruzkoa.
- 04/0620 erabakia, ekainaren 16koa, arma txartela bideratzeari buruzkoa.
- 05/0620 erabakia, ekainaren 16koa, 19 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina) onartuz, guztira 23.483,00 eurokoa.
- 06/0620 erabakia, ekainaren 16koa, udaleku irekietan hezitazile lanak bideratzeko hautagaien zerrenda onartuz.
- 07/0620 erabakia, ekainaren 16koa, lursailak bereizteko baimena emanez.
- 08/0620 erabakia, ekainaren 17koa, Foru Aldundiko Ondasun Landatarren ataletik jakinarazitakoaren arabera, Olanan 10 etxearen ondoan dagoen sailarekiko erreklamazioa onartuz.
- 09/0620 erabakia, ekainaren 22koa, udaleku irekien hezitzaile hautatuen zerrenda onartuz.
- 010/0620 erabakia, ekainaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 011/0620 erabakia, ekainaren 23koa, bereiztea bideratzeko baimena emanez.
- 012/0620 erabakia, ekainaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 013/0620 erabakia, ekainaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 014/0620 erabakia, ekainaren 23koa, Ostatuko fatxadan toldo bat jartzeko eskaerari buruzkoa.
- 015/0620 erabakia, ekainaren 24koa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 016/0620 erabakia, ekainaren 26koa, Elizalde 1 etxe azpiko ur zikinen hodia aldatzeko eskaerari buruzkoa.
- 017/0620 erabakia, ekainaren 26koa, Otzaurteko Bentan lanak bideratzeko eskaerari buruzkoa.
- 018/0620 erabakia, ekainaren 29koa, 21 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina 3) onartuz, guztira 42.587,45 eurokoa.
- 01/0720 erabakia, uztailaren 8koa, 22 zenbakidun fakturen erlazioa (uztaila) onartuz, guztira 15.687,37 eurokoa.
- 02/0720 erabakia, uztailaren 8koa, Olanan 5 etxeko jabeakideak pertsianak kentzeko aurkeztutako proposamena onartuz.

SAN BARTOLOME JAIK BERTAN BEHERA UZTEKO ERABAKIA.

(Arratsaldeko seiak eta berrogei minutu direnean Aritz Agirre Garikano zinegotzia -EH Bildu- sartzen da bilkura aretora).

Alkateak, Covid-19ak eragindako egoera dela eta, San Bartolome festen antolakuntza aztertzeko herriko talde eta eragileekin edukitako bileraren berri ematen du. Zentzu horretan partaidetza nahikoa egon zela adierazten du, eta bertan, Udalaren borondatea eta asmoa festarik ez egitea zela adierazi zen. Era berean, txirrindularitza proba ere ez dela egingo esaten du. Azkenik, San Martin feria antolatu ahal izateko zalantzak daudela dio.

Horiek horrela, San Bartolome jaiak bertan behera uzteko akordio formala hartzeko proposamena egiten da.

Horrenbestez, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Covid-19ak eragindako osasun egoera dela eta, herrian segurtasun eta osasun baldintzak bermatzeko helburuarekin, San Bartolome 2020 jaiak osoki bertan behera uztea.

Bigarrena.- Zentzu horretan, udalak ez du jaiekin zerikusia duten ekitaldi publiko edo pribaturik antolatuko, eta herritarrei, egin ditzaketen baimendutako elkartzetan, zentzuz eta arduraz jokatzeko eskatuko zaie, beti ere, indarrean dauden segurtasun neurriak bete ditzatela eskatuz.

Hirugarrena.- Herritar eta komunikabideei erabaki honen berri ematea.

4.- GALDE-ERANTZUNAK.

- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), eguneko zentroko langile batek helarazi dion kexa bat azaltzen du (konfinamendu hasierako egun batzuk oportunitatik kendu zaizkiela eta gero Segurako zahar etxera bidali zituztela; gizarte segurantzaren beraien poltsikotik ordaindu; langile baten baja dela eta, bere lanaldia ez da osatu eta lan guztiak osatzeko ezintasunean egon dira). Alkateak adierazten du, berari ez zaiola ezer adierazi. Zentzu honetan adierazten du, gaurdaino ez duela inongo kexarik jasotzeko kontratuaren garapenean, eta ondorioz, harridura azaltzen da. Koordinatzailea aldatu dela azalduz, Alkateak, arduradunarekin hitz egingo duela azaltzen du.
- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), eguneko zentroaren aurreko arrapala egiteko lanei buruz galdetzen du. Alkateak azaltzen du egiteko agindua emanda dagoela, baina ziurrenik uda aurretik ez direla egingo.

Aztertzeo gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipaturako eguneko zapiak direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasozazteko, nik egiazaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasozteko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2020.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO